

# SAN MIGELEKO BIDEAK

POR S. GARMENDIAI

Gogoan daukat txikitan, San Migel mendiaren izena entzuteak bakarrek, zer nolako dardara egiten zigun biotzak. Sasoi artan, Eberest mendia igotzea beziñ zalla ta urruti iruditzen baitzizaigun.

Oso txikiak giñala joan izandu giñan San Migel mendira. Betelu-tik irten, eta Basakaitzko basoa barrena, an giñan Malloan gora, bide-txigorretik, banaka, banaka, aldapari gaña eman arteraño. Ez giñan beluta-ko langara berealaxen irixten. Gaitz-erdi ala ere! Malloan ba-zan iturri gozorik, eta, antxen preskatzen bai gendun gure ezta-rria!

Beluta-n patxada-patxadan geldaldi bat egin da, berealaxen, guri oso itxia iruditzen zitzaigun basoan sartzen giñan. Eta orrelaxen, Juanagorritarren bat gidari genduala Prantzes errekarara irixten giñan. Ementxen egiten gendun bazkaria. Siesta pixka bat egin ondoren, Amuxate-tik Karlos Iturrira jarraitzen gendun. Aldapa gogor bat igo, Dorronziar-ko malda eskubira utzi eta Asurta-ko langan giñan. Langa artan arnas pixka bat artu, eta bidea zelaia-goa gendun gerora. Eta pago tartetik Sakana-ko zelaia agertu zitzaizkigun begien aurrean. Ura zan ikusgarria! Ez genezaken amets gozogarik amestu! Ura lillura!

Pago-bakar gero... san Migel bixtan geneukan. Ura poza! Ordu laurden bat eta San Migele-n geunden. Zakur aundi batzuk zaunkaka atarian. Etxe ba-

rrura sartu eta atearen eskubitara sukalde goxoa. Antxen irriparez, etxe-koandreak: Barbara, Eduarda, ta abar.

Sukaldera sartu orduko, an gendun apaiz jauna ongi-etorria ematen. Gela txukun batzutan trasto guziak utzi ta, berriro mendira: Putregain-eko exer-tokira edo Altxueta tontorera. Ango ikuspegiaren ederra! Txoraturik begiratzen genien Aralarko mendiei Ireber, Aia-ko arria, Mendaur, Larrun, Belate-ko mendi, Iruña, eta Auñamendi-Pirineos-etako tontor txorrotxoi. Aurre-aurrean Sakana edo Barranka, eta beste aldeti bapore aundi bat bezela san Donato mendia, Aundi-mendi ta Urbasa. Urrutigo Kodes, Peñazerrada eta san Lorenzo. Eskubiraxego, Olazti-ko pabirikako kearen gañeti Aratz eta Aizkorriko tontorak; Gorbea, Anboto eta beste asko eta asko.

Ba-ditezke Euskal-Errian Altxueta-k eta San Migelek dituen baño bixta aundiagoko mendiak, bañan... bixta ederragorik eta polittagorik dukenik, nekez billatuko dezue. Ikustekoak baitira Altxueta gañetik Sakan-eko zelaia, so-roak, etxeak eta ibaiak. Mapa batean ez obekigo! Gauz ere, bai baitu ikusgarri ederrik: Olaztiti-k asi eta Iruña bitarteko errietako argiak! Ura zorarena!

San Migel-en egun batzu egin da, nczipait etxeratu bear ba, ta.. Iturgoien-go iturritik Burni-gurutzera jotzen gendun. Dena basoz, alik eta Larrun ibaiaren sor-lekura iritxi artera-

ño. Errota zar baten ondoan sortzen da ain xuxen ibai au. Ba-du urik asko. Naiz ta uda erdia izan, ezpaitzaio ur garbia palta. An bukatzen da basoa. Iribas-ko plasaraño ezpaita zuatzik ikusten. Ala ere, erri politta da Iribas. Gure azken txangoa, Iribas-tik Lekunberrira zan. Argiñena edo Jazinton etxean sartu, eta zerbait bizkorgarri ematen genion gorputz nekatuari.

Aspaldiko kontu zarrak dirala, esango du bat edo bestek. Bego! San Migel-ea igotzeak ba-zuan orduan nekerik ugari. Orain besterik gerta tzen da. Automobilla eto motorra daukanak, aixa igo diteke araño. Baraibar-tik gora egin zuten bide-zabal dotore bat, beatzi kilometrokoa, eta ura bukatu eta, arnas batean zaude Guarda-etxean. Joxe Zufiaurre eta Nikolasa senar-emazteak, ta ama Martina, antxen daude gure zai. Zerbeza edo koka-kola bat edan da, patxada-patxadan Debata-tik aurrera, ordu bete baño len gaudeke San Miele-n. San Migel! Ezta lengo San Migel oraingoa! ¡Sukaldea kaxkarra eta gela gutxi. Izan ere... erre zan ezker, narru-gorri gelditu baitzaigu gure aspaldiko San Migel. Jendea bai ona, orratio! Don Inozenzio apaiz jaun agurgarria! Eleiz mutillak! Etxekoandreak eta morroi potoloak!

San Miela joateko biderik motxena Guarda etxetik joatea dalarik ere, badira ala ere zenbait mendi-goizale beste lekutatik joan oi diranak. Madoz-tik oso bide egokia dago. Luze xamarra izatea. Madoz-tik belaxe, soro tartetik dijoan bide-txiorra artu eta laxter gera lizardi eder baten ostopean. Pixka bat igo, ta Ata aranean zaude bete-betean. Zelai ederragorik! Akier mendi babesean dago zelai au, ganaduz betea. Antxen bertan ikusi diteke, jentil arri bat, Erroldan-arria deritzaiona. Zelaia bukatu eta, Iturgoien iturria dator. An-

dik San Migel-ea, iru ordu laurden edo ordubete dago, dena baso, dena aldapa. Madoz-tik San Migel-ea, bi ordu edo bi ordu t-erdi daude, gutxi-gora-bera (Ori, ankak esan bear).

Beste bide bat, Uarte Arakil-dik dijoana dezute. Errexa bidea, naiz ta bi ordu bear izan San Migel-ea iristeko. Erri barreanean dagoan pasatu, gurdi bide zabala artu, Sanmarze ermita eskubitara utzi, eta seittu bideari gora eta gora, alik eta burnizko gurutzera iritxi arteraño. Berrogeiren bat minutu denea. Bide zelaia; mando bideari seittu. Bigaren burnizko gurutzeta. Eta andik ogeita bosten bat minutu daude eleizaraño.

Bide luzea, bañan ederra, Amezketatik dijoana dezute. Ortik joan ezker, Aralar guzia ikusi diteke. Fernando bertsolariaren etxe ataritik pasa eta lotu gurdi bide kaxkar bati. Arri askotxo dago bidean. Amarlekutako borda pasa ondoren, eman ezker aldera eta Aralar mendira aterako zerate, Ondarreko iturriaren parean. Elordi borda ta Ariñate-ko larreak atzean utzi eta, Amezketan erreka ezkerrean deztela, Zotaleta borda azpitik Pardeluze iturira iritxiko zerate. Ondo nekatu ala ere! Gerora, bidea xamurragoa da. Eta bein lgaratzako arraten sartu ezker, zelai zabal ederra dator. Igaratzen zaudete. Errenaga-etxean, gaurregun «Igaratza-refugioa» deritzaiona. Naparroako muga, basoa, Mandarrate, Intza-zelai eta Kolosabarneko arrate luzea... Ondoren bide egokia dago, oiana beti ere. Igaratza-tik ordu ta laurdenea edo dago Guarda-etxea; emendik aurrera, bidea-jakiña da.

Billafranka aldetik ere sartu diteke San Migel-ea. Estazioa utzi eta jo Lazkao-mendira. Joan Amondarain baserriara, utzi ezkerreta Kobari baserria,

## PYRENAICA

eta gure eskubitara dakuskegu Inzartzu tontorra. Bee-xamarretik buelta emanaz, berealaxen arkituko degu Ataungo san Martiñ-etik eta Aralegi baserritik datorren bidea. Begizbegi dezute Sastarri mendia; mendi au eskubita utziaz eta Uiduiko txabolak ezkerreta dituzuela, Enerio-ko guarda etxe ingurura iritxiko zerate. Guarda etxe au erreta baitago, Eskizubarrena-ko txaboletik segi aurrera, Doniturrieta azpiko txaboletara, iritxi arteraño. Jo bizkarrez-bizkar Beazkin-go txaboletara. Berealaxen dezute «Igaratza ko refugioa ta elizatxo. Emendik San Mielea, bidea-jakiña da.

Araiz-aranatik igotzen diranak ere ba-dira. Bide ona da oso. Intza-tik sartu eta «Limite» deritzai, uso txabole-

tatik pasa ondoren, jo Agiñaga iturri-  
ra. Edan ur garbia iturrian, eta jarrai bidetxiorrez alik eta Lizarreta-ko lepoa eldu arte. Beloki mendia ezkerrean degula, Bustintza txabolako pausoa atzemango degu. Betelun txabola pasa, Guarda etxera dijoan bidea eskubira utzi, eta alanbre muga seitturik, Arbazuar Joxe Mari Ganboa-ren txabola txurira aterako gera. Albin karretera trabeska pasatu ondoren, ordu laurden bat barru, Dorrontziar baño lenago, Guarda etxetik San Migel-ea dijoan bidea arrapatuko degu. Artu bide au, eta ez geiago utzi.

San Migel-a joateko artu bear diran bideen berri eman degu. Zerbait geiago jakin nai izan ezker, idatzi zazute Pyreneica-ra, eta pozik erantzungo diegu galdera guziei.



*Albergue que la F. E. M. ha construido en Elorria (Gorbea) y que será inaugurado en el próximo Campamento regional. (Foto Sopeña)*